

## EUSKEL-ITZ BARIJAK

Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen

### Altube'tar S. Jaunak

Euskaltzaiña

Andrak, jaunak. Iragari deutsuedan gai ori, Gernika-ko Batzar oneetarako itzeikizungari' Mosen Antoni Grieria (1) izkuntzalari jakitunaren eskabidez imini zan, eta Euskaltzaindijak' (2) neuri leporatu eustan lan ori; baña ez Euskaltzaindijak berak gai oni buruz zein eretxi daben nire agoz agertzeko, neuk neurez esan neikean deusezkerijia agertzeko baiño.

Neure laburtasun oneri batetik, eta bestetik gajjori begiratuta' bildur naz neure lantxoau askori atsegingarijegi ere ez ete jakon izango.

Izan ere, aintxiñatik Euskalerijon zakal ta edaz bizi diran itz eder eta bear-beareko askori erderatikoak dirala ta beste barik; bekozko ilunez begiratzen deutsenak' gaitz irunsi daike, itz-baririk eraltzeko' irioiz erderetara jo bear izateori.

Itz-aldi onen lenengo atala, bada oretariko bekozko ilunok al daigun bestean arinduteko izango da.

Bigaren atalean gure iztegiaren utsuneak beteteko, erijak bereganatu ezti uan erdel itzetara noiz jo bear dogun eta noiz ezko gai astun eta sariari ekingo deutsagu.

Eta parkatu gauza oneek nik baiño obeto dakizuezanok; bádakit, batez ere lenengo atalean esan dagitsuedanik asko, entzutez, irakurtez eta jakit ez aspertu ere eginda zagozeena-ta.

---

Sari entzun, eta irakuri izan dogu: guk euskaldunok, askok beintzat, euskera-ikaste-irakaste lanak, izkuntza-jakintzatik urun zamartuta erabili oi-ditugula (3).

Eta egi-egija da. Euskaltzale geijenok' beti geure buruz gabiltz euskal-gauzetan izkuntz-jakin-tzarik ezpalitz bezela. Eta ortixek sortu jakun orako jakintziaz kontrako sunde oren baruan aurkitzen gara, geuk eztakigula.

Eta oker-sunde ori geure artetik nekez urundu ta aijenatuko dogun antza ere bada.

Beste jakintzeetan, euren jakiturik ta buru-argitasunez, goirik agertzen jakuzan euskotarik asko

---

(1) «*Lexicografía y Geografía Lingüística*» gajjaz, Bilbo'n, 1921'gko Uridhn emon zituan beronek iru konperentzi. Ordutixek-eta-ona batez ere, ezagun dogu Jaun ori, geure izkera lanetan. (Konperentzi oreik, «*Eusko-Ikaskuntza*»k eraldu ta argitaldu ere egin ziruan.)

(2) Lan onen gajja, astuntxua izan jaku, euskera erretxuz eta argi azaltzeko. Neke-pide ori txikitu naijez, *koma* klase bi darabilguz idazki onetan: bata gorutz-koa ta bestea *berutz-koa* iñoiz beste rakurgai batzuetan ikusi izan dog unari jaraituz, jo dogu argi-bide oretara.

(3) Letra txikijagoaz iminxen dan guztija, etzan irakuri Gernikan, irakurtaldija luzeegi ez iegitearen.

kusi oi-ditugu, bear litzatekezan bideetatik ekinda, euskal jakintziari laguntasun aundija egin bearean' alperiko lanetan euren buruak nekutzen.

Diñogun au onduteko' izentau giñaikez emen, oraindik azken urteotan agertu diran liburu ta idatz-lanik asko; euroetan egundo inok bururatu eztiluan mailetaraino eragira agertzen dira, gaitz den ondorenak

Euskal-aditza (adibidez) etxeko ta, kanpoko izkuntzalari orenen eretxiz, (bádakizue) aberats, eder eta argija izan da ezpai barik; geure izkera onen alderik bikain eta gurena. Bada orain, aitatu ditugun liburu ta idatz-lan bari orek dirauskuenez' oso bestetara da egija: gure aditz ori, gure *verbo* edertzat geunkan ori' guztiz iruli, aldatu ta baristau ezik' ez ei da ezetarako ere gauza.

Erdi-izentau ditugun liburu-idazle oretarik batek, izugarizko itz beeragari ta sokondoragarriak ezarten deutsoz, gaur bizirik ezagutzen dogun euskal-aditz oni (1).

Eta ez uste izan (au biotz-biotzez agertzen dogu) itz orek, euskeriau zapaltzearen dirianik; geure Eri ta izkera au maite-maile diru euren idazleak-eta. rederik onenez, baiña izkuntz-jakintza oker eta bidekatuak bultzatuz eldu dira, au ta onen antzeko beste euskaltzale aitaturagarijok, uste gabeko ondoren eta asmokeri orek ontzat emoteragiño.

Bide oker orek ekari oi-dabeen itsutasun ikaragarriak jota, ona noraino eldu garian:

Neu itzaz, erderazko yo aitzen dogu euskaldun orok. Bada, ez ei da ori sentzunezko; ta *Neu*, yo tzat barik, *Neu, tu (mujer)* tzat erabili bear ei-dogu; ta *Neu* naiz, *tu eres (mujer)* tzat (2). Eta orexen antzera beste edozenbat asmokeri.

Baiña, gure ustez, barikeri onen asmagileak eztau eru andirik oretan; gorago esan dogun, eta euskaltzale geijenok gitxi-asko maite dogun eskola okeraren irakatzijak bide ontzat artu' ta euroetatik sortzen diran ondorenak, azkenengo maleetaragiño zuzen eta artez eroan baiño eztau egin berak.

Eta, gure eskola oker onen alde nagosija zein ete da? Nire uste makalez urengo auxe:

Izkeria' geuk nai daigunera biurtu giñaiken gauzia dala, *laregi* uste izatea.

Eta uste oregaz, or gayabilkoz geure izkera oni, batak ziki, besteak miki; arek au aldatu bear jakola; onek aldakuntza tixiki batzuk naikoa dituala, orek txiki batzuk al badira aundijagoak ere bardin ezari leikeozala, eta abar ta abar. Eta arteetan alkar airu ezin; egin bear geunken lana (euskelia dan legez, bizi dan bezela, ondo, zeatz ta zustraiz ezagutu, lenengo beintzat) ori' inok egin nai ez; izketiau eragireko, goratzeko, eskuetan ditugun bide jakiri eta erezak' artu nai ez; itz batez, alperiko lanai ekin itsu-mustuz, ete bear-beareko ta onuratsuak lo.

Izkeria bariz gauza bizija bezelakotzat artzekoa dogu. Argizerizko santuari, edo giza-irudi bateri, egin leijo, emen zatitxu bat kendu. an imini; gorago ar araijatxu bat egin, beerago azpilduratxu bat atara, zintzel, rormoi, ezten edo beste edozetariko ereminta, edonun eta edozela ezaririk. Baiña izkeraak etxakuz orekakoak; azur, mamiñ eta azala, odol eta izardija alabeen benetako bizikijen antzeko baiño. Eta etxagokoe eurai inor zirika ta zati-iminka ibiliterik.

Baldin geure izkeriau ba, sendatu ta indartu nai badogu' egualdijak zugatz, ortukari ta beste landaraki orori bezela emon giñeijo laguntzia; landarakija, eguzki-eurijak onuratu oi-dabe; izkeria, ekinaren berotasun eta beti agoan erabilijaren bustitasunak. Orixe dogu guk ere bide BAKARA, asko ta askori nekez burura sartzen bayaku ere: atara aixetara geure izkera maitiau, erabili beti-ta-beti, edo-nun eta edo-norekin; emon oretaraxe bizija ta indar a, eta orduan erez izango dogu bear dan neuriz garbitu ta txukuntzea, alboko bedar txar ta gauza ez tiranak kenduz; beste asmokeri ta bari-lerizko bideok, alperiko ta kaltegarri baiño eztira.

Esandako barikerijoi eskubide-antza emoteko' bide-txigor sasitsu ta ilun batera eroan oi-ditugu euskera autuok. Eztirala eurok (barikerijok) geuk asmamikoak, esan oi-dogu. Ain tokitan edo ain denporatan, itzen bat edo itz atalen bat onetara ta bestetara esaten dan edo esaten zan agerki andi edo txikiren bat bá-ei-da eta ortik zuzen-zuzen ataraten ei-da (zentsunak berak ei-diño-ta), barikeritzako ori, ontzat artu bear dogula.

Naste-boraste onneen deuseztasun eta makalt asunaren zustraija' izkerakijen *zabalgo* aintzat ez artzetik sortzen da.

¿Zer da *zabalgo* ori?

Bádakizue: itz batzuk' (euskeria adibidetzat artuta) Euskaleri oso-osoa ezagunak eta erabilijak dira: *Ni, Zu, Aita, Ama* eta abar bezela. Beste itz batzuk' euskalkiren baten baiño eztira entzuten: Bizkai'ko *Eru* (culpa) ta Gipuzkoa'ko *Garai* (sazón, época) bezela. Bádira eri baten, auzo baten eta irioiz etxe bakaren baten baiño entzuten eztiran itzak ere. Bardin gertatzen da izki, itz-atal, esakera ta beste izkeriaren agerkun guztijetan ere.

Itz bat era oretan gitxi edo asko zabalduta bizi dala agertzeko' erdeldun izkuntzalarriak erderazko *area* itza erabili oi-dabe; «*voz de mucha area*» zabal bizi dan itzari, toki askotan ezaguna danari. Guk *area* erdel-itz oren ordez' *zabalgo* euskal-itza erabiliko dogu irakurgai onetan.

(1) *Ensayo de la Unificación de Dialectos Bascos*- P. SOLORTA. —Dima (1922). 90 gn. or.

(II) P. SOLOETA. Ait, lib. 58 ta 59 gn. or.

Eсандako bide ilun eta nasteetarako laguntasun edera auxe dogu: zabalgorik txikijena dabeen itz edo izkerakijak, naiz aundijena dabeenak' neuri baten imintea, garantzi bardiñekotzat artzea. Zabalgo oren ordezko' eretxikizuna, geuk gauza batzui baiño beste batzui politago edo egokijago eriztea iminten dogu; baiña onako eretxijok, (jakiña) zenbat buru, ainbat aburu: batak' au dala politena, besteak' ori dala aintxiñakoena, urengoak' a dala zentzunezkoena.

Oker-bide orekaz geure izkera oni zenbateraiñoeko kalteak erakarten deutzaguzan, eretxiratzen ere gaitz da. Alkar aitu eziña gitxi eztala' alperiko lanetan aldija emotea; zeruetako edo aingeruen euskeriaz amesetan ibiliten ikasi ta lurekoau ezagutu ta ikasteko zaletasunik, ez gogorik, ez izatea: iñok (edo gitxik baiño) ulertu eziriezko euskeraz, liburu eta idatz lanak egin' eta onetara irakurlerik asko uxatu ta zalegetzea. Benetan, euskeriak burua jasoteko dixuan eragozpenai lagun egiteko' ezin zitekean gaur bide obarik autu.

Izkera gauzetan zabalgo oreri bear dan lotsia ta garantsija emoten ikasi ezpadaigu' eztoгу zekula lan ganorazkorik egingo; eztoгу euskeriau indartu ta goratzeko arloan aurerapiderik lortuko.

Bestetara bariz' eztiñogu guztija eginda legokenik, baiña onetarako bear-beareko dogun bidea artu bai. Eta lenengo egunetik oartuko geundez onurarik asko: sortu bear etziran eztabaida asko bertan-bera ilda geratzea beste ezta-baida geijenak beingo baten eta bear dan legez amaitzea aldi bakoitzean nortzuentzako idazten dogun begiratu, ta euron artean zabalgo andija eztaben itz eta izkeraki gitxi edo bat ere ez erabilirik' beti euskera samur eta gozoa irakurlien begi auretara eroatea, eta orela irakurteko zaletasuna zabaltzea. Eztira gitxi ta muxin egitekoak oneek eta beste jaritxiko geunkezan onuraok.

Airatu ditugun izkuntziaz kontrako gure buru-bideok' iztegi arazoetan ere aurez zabaldu jakuz.

Izkeria nai bezela aldatzeko gauzia dala uste izanik' jakiña, geure euskera oni, erdera useiñik alabeen itz eta izkeraki guztijak kentzeko asmo, ustez, eder eta aberkoiaz ames egin dogu.

Olantxe ere, izkeriaren ganzarik baruko ta kutunena gramatikia dan rizkero (1), garbikerizko asmo edo ames oretan ere' euskal-gramatikia aureren eta beiñen imini bear geunke. Baiña eztoгу on egiten.

Itzak, iztegiya, izkeriaren alderik azalekoen eta aldakorenak baiño eztira. Baiña zuzen ere, azalekotasan orexegatik, itz askok agiri-agiri izaten dabe, erderatikoak diranean, euren erdel-useiña. Edonor gara maixu igarte oretan, sekula euskeriaren gaingo ikaste txikijenik egin eztabeen euskaldunak ere bai. Eta. ortixek sortu da, ta erijan ere zabaldu, onako eretxi oker-okar auxe: «Euskerarik onena' zuzenena' jatorena' erderatiko itzik gitxien darabilanena dala.» Eretxi oin-bako, zustrai-bako onek, amaikatxu izlari ta idazle ganora gitxikori estaltzen deuskue geure ez-jakiña. Euskel-gramatikiak agintzen daben arauz lau itz soiltxu ereskanan iminten eztagigun asko' or ibili oi-gara panparoi, *botila* esateko *bombil*, *txininiya* ren ordez *ke-zulo*, eta oneen antzeko beste bost edo sei jakinkeri erabilijaz, euskeraz ederto dakigula erakutsi nairik.

Besterik da gure baseritar askoen euskera samur, gozo, itzez aberats eta esakun politez jositakoa; alako jakinkeri ta beste barikeri barik azaldu oi-deuskue eurok edozer, bear danean (mundu guztiko izkera-legeai jaraituz) erderatiko itz gure artean zabal zamar bizi dirianak, kezka barik eta egoki-egoki bitartuten dituela. Ortxe dau euskalzaleak, geure aberiko izkeria ondo nun ikasi, ez gure geijenoen idazkijetako euskera margul, gaza, txepel, otz eta murijetan (2).

Oraingo euskal-idazleok, erderatiko itzai artu deutseegun iguin neuriz kanporako oren sortze-bide bat lengo gizaldijetako liburu-idazle batzuen best alderantzeko gatxa ere izan da, urean. Orain bereun urte inguru, *Juan Irazusta* eritxon *Hernaldeko eretoreak* euskeraldutako Aita Asteteren Dotriña kartilia eredutzat artuta edo, ordutik eta ona idatzi diran erderakadaz jositako ta euskerazko izenik ere merezi eztaben lotsagarizko liburu batzuk' gura nai ez sortu-erazo bear eukeen, bestalderantzeko gogo laregiko bat eta sortu da, ta gogor, igaro diran urte batzuetatik eta onuntz.

Irazusta-tarok euren itxitasuna eta erdalkerijia urun croan baeben, ez gara gu orain geure garbikerija or egaz ere urago geratu; egal batetik bestera joan gara, ertz batetik bestera.

Irazustak *«prinsipioa ta fiña»*, *asija* ta *amaija* ren ordez erabilirik' izkera legeai, bi eratara

(1) Ikusi, RENAN, *Histoire des Langues Sémitiques*, V liburua, II buru-atala.

(2) «Les gens du peuple ont de leur langue une idée généralement très précise; ils sentent avec une rare délicatesse les moindres irrations à la règle». J. VEN DRYES. *Le Langage*, p. 284.

uts egin eutsen: lenengo, euskerazko itz egokijak utzi ta erderazkoetara joteaz; bigáren, euskaldunen artean zabalgo andija alabeen itzak baztatu' ta iñungo euskaldun jaterek aitu ezinezko itzak imintez. Baiña bigarén lege oni, bardiñ uts egiren deutsoe oraingo garbikeri zaleok ere, arako *pekatu*, *fede* eta oneen antzeko itz argi, esan-guratsu ta zabalgo aundikoak sokonduratu, ta euron ordezkotzat, iñok edo gitxik baiño ondo aituten eztiruenak erabilteaz.

Utzi daiguzan iaregikerijok, naiz batetasikoak naiz bestetarikoak izan eurok.

Erderatiko itzen arerijook talde bitan berezi ei-giñaikez. Lenengo, zustraitijak: erderatiko itzik bat ere ontzat emon nai emituenak; bigaren, biguntxoagotijak: erderatiko itzok ontzat artu geinkezala diño eonek, baiña euskera bizijan ikurpen bardiñekorik ezagutzen ezteanean bakarik (1). Lenengotariko arerijooi, zustraitijoi, len esan dogunez gaiñera, itz bi baiño ezteutsegu zuzenduko: munduko izkuntzalari oroen eretzijak eta Eri aureratu orotan (alan ere gureau bezela aundijagoz inguratutakoetan) gertatu dan eta gertatzen danak, guztijak, eguzki-argitasunaren indarez bezela agertzen deuskula asmo oren lortu-ezin, atzerakaritasun eta bidegabetasuna (2). Gure izkeraonen erijotzarik loratsu ta aberkoiena ustez, baiña benetan ziuren ta bizkorena' bide ortatixek bilatu geinke: ekin danok geure iztegi gaixoaren erderatiko itzai tiroka, eizean . . . . Baiña ¿zergaitik ez ereztu euskeriaren bizi al izatea? ¿Eztirauskue bada izkuntzalarijak eurak, erderatiko itzok gora-bera, iztegiyen arotz-tasuna gora-bera, izkeraak ezabela galtzen euren nortasunik? (3) ¿Zerk garoaz bada maixe dogula diñogun izkeraoni, erijotz-bideetarutz bultza eragixen? . . . . Aurean daukaguna ez ikustearen ezteiguzan geure begijok itxi. Euskeriari deusagun mairetasunak berak ekariko al gaitu bide onuragarizkoetara, orok bidez lanean ekinda ere bádogu zeregiñik asko berari laguntzen-eta.

Bigaren taldekook nai dabeena, laregikeri barik eta erder atiko rezen kontrako mukerkerijaori kenduta' artu lei neuritzat. Baiña onetara artu ezkeru, geijenetan beintzat, ezlegoke erderatiko itz zabalgo andikorik zeiten baztatu. Ikurpen bateko, esan-gura bardiñ-bardiñeko itz bi' gitxitan eta aldi laburen baten baiño ezin bizi izaten dira izkereetan. Eriyak laister ezbar-dindu ta erabikotu oi-diru oretariko itzeen ikurpenok. Benetako euskeldunak, arin, asmauko dau (adi-bidez) *pixutsu* erderatiko itzak eta *astun* euskerazkoak agertzen dabeen bardiñeztasuna. «Gorputz *astuna*» gorputz-aldi txara daukagula adi-erazoteko ere esaten dogu, baiña «gorputz *pixutsuak*» eztau ori iñoiz ere esan gura, *benetako pixu* aundija daben gorputza baiño. «Pekatu *astuna*» erderazko «pecado grave» adierazoteko' ederto esanda dago, baiña ez «pekatu *pixutsua*»; onetara eztau iñok esaten. Erderatiko *pixutsu* itzaren ikurpena' laburagoa, estuagoa da ba; gauza batek *benetako pixu* andija dabela adi-erazoteko baiño ezta egokija. *Astun* itza bariz, gogo, zentzun, arima eta *benetako pixurik* eztaben gauzerarako ere erabili leiteke baita *astuntasuna* irudi-bidez artu nai dan aldi guztijetan ere (4). Itz bi oezaz gertatzen dana jasoten da beste asko ta askoezaz ere: eta iztegiyaren zeatz-tasun eta aberastasun-bide ugari-ugarija da (5) erderatiko itzok orela ekari oi-daben ikurpen banantze edo erabikotze ori.

Orez gaiñera, erderatiko itzoen kontrako burukea irabazi al izateko' gaitz-tasun berezi-berezijak ere agertzen dira sari.

Ikusi daiguzan onetariko gertakun batzuk.

(1) AMÉRICO CASTRO, *El elemento extraño en el lenguaje*, 48 gn. or. Conrerencias de «Eusko Ikaskuntza».

(2) Ikusi, AMÉRICO CASTRO, *ibid.* 43 gn. orialdetik eta 60 gnerairio. MICHEL BRAAL, *Essai de Sémantique*, 282 gn. or. ta urengoak. J. VENDRYES, *Le Langage*, 269 gn. or. Am. GRÉGOIRIE, *Petit Traité de Linguistique*, 148 gn. or. ALBERT DAUZAT, *La Philosophie du Langage*, 102 gn. orialdetik eta 109 gneraiño. ALBERT DAUZAT, *La Géographie Linguistique*, 119 gn. or. EUSKERA, *Euskalrzaindiaren Lan. eta Agiriak*, 1920-1921, 1-go zenbakia, 28, 32, 33 ta 34 gn. or. Eta abar.

(3) A. HOVELACQUE, *La Linguistique*, 10 eta 53 gn. or.

(4) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 261 gn. or. «La création d'un mot nouveaa ne détruit pas necessairement l'ancien, mais le rejette souvent dans, une partie spéciale du vocabulaire.»

(5) MICHEL BRÉAL, *Essai de Sémantique*, 289 gn. or.

## LENENGO GERTAKUNA

Erderatiko itzak zabalgo andija ta zustraikide asko izatea

Erderatiko itz bat ontzat artzeko, aurenko zegaitija' zabalgo andikoa izatea da. Itz batek bere zustraijak, bere erpeak, zenbat eta sakonago ta gogorago erijan sartuta dituan' ainbat gaitzago izango da orpotik atara ta baztereratzen. Zabalgo ori, zustraitasun ori, neuri aunditxu batera eldu ezkerok' alper-alperikoak (eta kaltegarriak, beraz) izango dira bere kontrako idazleen alegiñak; erekan bera dator en ur-jola bizi ta itsuari, umeak olgetako egin oi-dituen ugeska ta uxetak aurean imintea bezelatsu. Eztogu ezer lortzen idazleok oretara ekinda, irakurgaijak ilundu ta zan-bakotu baiño.

Erderatiko itzak, baldiñ zabalgo andijaz gaiñera, senide edo zustraikide asko (zustrai bardiña dabeen beste itz asko) baditu' alperikoago izango da oraindik bera baztatu nairik ekitea. *Santu* erderatiko itza (adi-bidez) euskeraan zabalgo aundija dabelako' oso gaitz litzateke baztarteza bada gaitz-tasun ori asko geituten da oraindik, urengo iminten dixugun bere itz zustraikideok zabal bizi dirialako: onako *Santutasun* (erderaz, *Santidad*), *Santutu* (*Hacerse santo*), *Santularijo* (*Beato, Santurron*) *Aixa-Santu* (*Papa*), *Satutxo* (*Humilladero*) ta abar. Eta bardin gertatzen da beste ainbat erderatiko itzez ere. Oretara alde guztijetatik erijari euren erpeak sartuta bizi dinan itzak ¿zelan azpiratu beste makal batzuk euren arerijotzat imiñita? *Dauzat* izkuntzalari jakitunak dirausku oneri buruz itz, egoki-egokiz: Izkuntza-gudakeetan, giza-gudakeetan bezela, gudarozte aundi ta ugarijenak urten oi-dabeela garaitzaile (1).

## BIGAREN GERTAKUNA

Erderatiko itz baten ordezkotzat' ikurpen edo esan-guraz antzeko baiño  
eztan euskerazkoa imini nai izatea

Gaitz da bide orez ere, garbikerizko asmoetan, ezer jaristen.

Oretaraxe baztatu nai izan dira arako *Pekatu*, *Arima*, *Santu*, *Fede*, *Eletrika*, *Dotriña* ta beste bear-bear dixugun itz zabalgo andiko ta ikurpen balijotsukorik asko. Euron ordezkotzat imini oi-diran euskera utsezkoak' bádakizue zeintzuk diran: onako *Oben*, *Gogo*, *Guren*, *Siñiste*, (edo *Siñiskintza*), *Tximista*, *Ikasbide* (edo *Jakinbide*) ta abar.

Gauza bakoitza izen bereziz aitatzeko, erijak beti agertu oi-daben jokera bizijak' eragozpen gogora jarkiko deutse idazleen garbikerizko asmo oreen. Erijarentzat *Oben* eta *Pekatu*, itz bi guztiz bardiñezak dira; bakoitzak bere ikurpen berezi ta garbija dau. Bardiñ gertatzen da *Arima* ta *Gogo*, *Eletrika* ta *Trimista* ta abaregaz ere. Txirotasun eta atzerapide aundija litzateke, beraz, oretariko itz-bikook, bat baztartzuz, batetaratzea (2); gure izkeriau, beste inguruko guztijak baiño beragoko maileetan ezartea baiño ez litzateke ori. Gure *Arima* ta *Gogo* itzeen orde (berbarako), or dauskuez inguruko izkeraok euren *Alma* (*Anima*), *Espíritu*, *Mente*, *Animo* (3) ta abar, eta bat ere baztartzeko asmorik (erazoi-az-da) eztabe egertzen iñoiz; gu gara, iztegi txiroagoa dogula, oraindik murijagotzeko adorea dogun esku-zabalak.

Beste alde batez, *Siñiste* eta *Fede* bezelako itzak agertzen alabeen ikurpen-bardiñeztasuna ta beraz bakoitzak bere zustrai berezizkoaren jabe bear izatea, landara-buru (ta ez bata bestearen aijen edo

(1) Ikusi DAUZAT'en *La Géographie linguistique*, 53 eta 66 gn. or.

(2) JUAN JOSÉ MOGUEL'ek bere *Mayatz-illeraco Berba-aldijac* deritxon liburuaren 2 gn. orialdean, auxe diño: «... beti aureneengo dirala ARIMAKUAK (premiriaak) GOGUAN ondo eukirik . . . » Gure garbi-zaleok, eztakigu zelan esango leuskijon, esakuntxu ori, eri zee ta ez -jakiñari, Mogel-ena baizen argi, txukun ta ulertze-erez izan dakijon beintzat. J. A. DE URIARTE'k *Marajaren illa'ren* 144 gn. or: «... PEKATUra OBENdu ta makurtua...» idazten dau, itz bakoitzari bere ikurpen berezija oliro ta egoki ezarten deusela. Goratxoago, 138 gn. or. auxe diño: «O, eta zelan kondenetan daben Jesusen OBENTasun onek gure mukertasuna». OBEN, PEKATUtzat artu ezkerok, Uriarte'ren azkenengo esakun au ez litzate santu-santua.

(3) Ikusi itz oneen bardiñeztasunari buruz, R. BARCIA'k bere *Diccionario General Etimológico'n* diñoana.

adar) izateko alabeen eskubidea ere' erderaak eurak erakusten deuskue ederto; euretan, oretariko itz bakoitza, beronegandik sortutako beste adar-itz askoren ondo edo zustrai bezela agertzen da. Ikusi espairieraz, adibidez, gure *Fede* ordezeko euren *Fe* itzareen senideak: onako *Fidedigno, Fiducia, Fideicomiso, Fehaciente, Perfidia (Pérfido, Pérfidamente), Fiel (Infiel, Fidelidad...), Fielato, Fiar (Fianza, Confiar, Confianza Desconfianza. . . .)* eta abar, alde batetik; eta bestetik gure *Siniste* ordezeko euren *Creer* itzaren senideak: onako *Creído, Creencia, Creible (Increible, Creíblemente, Credibilidad . . . .)*. *Credo, Cédulo (Incrédulo, Credulidad...), Crédito (Acréditar, Desacreditar . . . .), Credencial* eta abar. Gure goragoko itz-bikook batetaratzeaz' aor beste kalte bat: itz-eratorpide ugari ta sakon-sakonak, orpo-orpotik atara ta ondatzea.

Gertakun guzti oreetan eta beste antzeko orotan bada, erijaren berezko-zentzuna, len esan dogun bezela, ikurpen bardiriek itz berezizentzau bear izatearen indarak bultzatuta' nekez obenduko da erderatiko itzoi jareiten. Erijaren berezko-zentzuna orek, eztalo (eztau jakin inun ez inoiz) itz batek bere sortzerea onetariko edo bestetariko dabela-ta, baztartzea ala goratzea merezi leikeanik. Beste toki batzuetatik sortzen dira, ez ortik, izkerai zirkiri eragiren deutseen indarak.

Eta izkereen berezko-indar sendo, ur-jolatsu ta ezi-eziriekoen kontrako bideetatik geure euskeriau eroan eziñik, ezteigun alperiko alegiñik egiñ, diñogu bariro ere.

## IRUGAREN GERTAKUNA

Erderatiko itza ordeztzeko, euskera utsezkoa, labura izatea

Erderatiko itz bat luzetxoa, izki askotxo diruana baldin bada, ta euskera utsezkotzat dogun ordezkarija, labur zamara' gorputz txikikoa' gaitz izango dau onek a azpiratzen. Orixe oartu giñaike izkuntz-jakintziaren irakatsijetatik, batez ere, *Gilieron* ospatsuak, Prantzi-izkereta-ko *Atlas linguistique* deritxon lan aundi-ja agertuz, jakintza oreri geixu deutzazan argi-bidez berori aberastu danez gero (1).

Izkera orotan erijaren jokeria, itzak apur-apurka esate-ereztu ta laburtzekoa, izan oi-da, Alperkerizko jokera orek, itz asko, len luze, berezi ta eder zirala' gero, labur eta txatxar izten ditu; eta euren soiñua, beste itz batzuenaz, zein zein dan ezagutu ezindako moduan bardinduta sari. Ta au gertatu oi-danean' erijak berak egiri oi-dau alegiñ, etxean edo kanpuan (bere iz keraan edo erdereetan), oretara dundu ta naste-bidean sartu diran itzeen ordezkarijen bila (2)

Bada, euskel-idazleok inoiz nai izaten dogun bezela, erderatiko itz luze ta soiñutsuak baz-tartu ta euron ordezkera utsezkotzat dixugun laburtxo batzui lura artu eragixea ere zein gaitz dakikegun' garbi agiri da izkuntz lege oren irakasten deuskunaz.

Oretariko itz labur bat, adi-bidez, arako AT (edo ATE), erderazko *Fuera* ikurpenakin berbiztu nahik darabilguna da. Euskal-itz labur ori, oso alde gaitzean aurkitzen da *Kampo* erderatiko itzaz (3) burukan ekiteko:

Lenengo, *Kampo* itza zabalgo aundi-aundikoa dalako, ta AT (naiz ATE) oso txikikoa (bape-zekoa ez ezatearen).

Bigaren, *Kampo* itzaren aldean AT itza' labura, soiñuki gitxikoa dalako.

Irugaren, itz eta izkeraki laburegijai sari jaso oi-jakoen bezela (4), AT (edo ATE) itzak ere' soiñuz beronen antzeko beste itz batzugin. naste gogaikari ta jasan eziñezkoa sortzen dabelako. Beste itz orek ATE (erderaz, *Puerta*), ta ATE (erderaz *Pato*) dira (5).

Ikusi daigun itz onei jagokoen erderazko esakun bat:

«EL PATO ha salido FUERA de la PUERTAS

Euskeraz ¿zelan esango dogu? erijak argi ta bizkor erantzungo deusku:

¿PAITIAK, ATetik KANPOra urten dau»

(PAITA ta KANPO erderatiko itzak izan aren). Euskera garbiz (edo *garbitzakoz*), bariz ¿zelan esango geunke?

«ATEak, ATetik ATEra urten dau».

(1) Ikusi DAUZAT, *La Géographie linguistique*, 53 ta 66 gn. or. Eta J. VENDRYES, *Le Langage*, 250 gn. or.

(2) DAUZAT, *Géographie linguistique*, 68 gn. or.

(3) Euskerazko *Kampo* ta erderazko *Campo*, eztira bardiñak ikurpenez; euskerazkoak *Fuera*. esan nai dau: *Kanpora (a fuera), Kanpotara (forastero)*.

(4) DAUZAT, ait. lib. 89 gn. or.

(5) ATE euskel itzau berau ere erderazko ANADE (edo latiniñ ANATE) tik ei-dator. Ikusi/ C. C. UHLENBECK, *Phonétique comparative des Dialectes Basques*. 49 gn. or. Ta BONAPARTE, *Le verbe basque...* XXIX or. 3-gn. oara.

Erijak azkenengo au ta onen antzeko naste ta esakun ilunik ezin eukean jasan eta bear bada orexegaitik jo eban erderatiko *kanpo* ta *paita* itzakana ta euron bidez aijenatu ditu zeatz eta ederto naste iruntsi ezin zitekezanok. Eta ezteutse jareingo itz orei ezetatik ezetara ere, idazleonek ekiriai gorabera.

Eta onen antzeko gertakunak asko aurkitu geinkez euskeraan, beste edozeiri izkereetan bezela (1).

Ta sari, premiria dan baiño uririago jua oi-da erija olako osagari hila. Bizkaitaron ITXI itzak, adi-bidez ikurpen bi dixu: espairiaren *Cerrar* eta *Dejar*. Naste oretatik iges egin nairik eraldu dabee, eri batzuetan, *Dejar* esateko erderatiko *LAGA* itza, beste euskalkijetako *UTZI* itz argi ta bikairia alboan utzita.

Itz laburok eztitue beti oretariko nasteak erasortzen, baiña alan ere erijak sari jareixen deutsee ta ordeaz luzeagoak aitu. Balixeke arako *ZIN* eta *LER* euskel-itz polit-politak utzi, eta *Juramentu* ta *Piñu* erderatiko itzok toki askotan zustraitzen ere, itz laburen kontrako lege orek zerbait lagundu al izatea, ta orain eurok baztatu al izateko, kalte ere egitea.

### LAUGAREN GERTAKUNA

Erderatiko itza ordeztzeko' euskerazko ikurpen bardiña eztaben bat,  
zerbait soiriuz aldatutakoa izatea

Euskaltzale batzuk, nai izan ditue bide orez ere erderatiko itzak ordeztu. Batzuen ustez, len esan dogun *atE* itza erderazko *Puerta tzat utzi'* ta *Fuera tzat*, *atA* erabili geinke. Beste batzuen ustez, *Ontzi* ta *Untzi* erderazko *Vaso* ta *Barco* tzat banandu leikez; *eskEr* eta *eskAr*, *Izki-erda* ta *Gracia* tzat; *Burni* ta *Gurni*, Hierro ta Acero tzat; guztiotan, letra baten aldakuntziaz, ikurpen aldakuntzia jaritxi nai dalarik.

Baiña izkuntz-jakintziak, aldakuntza txiki oreeri buruz oartzten deuskuna ikusita' báliteke bide orez ere onura aundi-aundirik ezin lortu al izatea. Izkereen jokeria, bestetara dala irakasten deusku jakintza orek: itz bi, soiriuz antzeko diranean' bata bestea erakari ta bijak bardin-bardin geratzeko ariskuan izaten ei-dira (2).

Alkar-erakarte lege orek lagunduta dirudi, len esandako *Utzi* ta *Itxi* itz alkaren antzekook bizkaitaron agootan bateratu (bigareneratu) dirala; bardiñ antza danez, *Oratu* (*Agarrar*) eta *Goratu* (*Levantar*) ere, Bizkai'ko eri batzuetan euroetan *Agarrar* esateko ere *Goratu* esan oidabe-ta.

Baita *Jesari* (Sentar) eta *Jari* (Ponerse), eta (Gipuzkoa-aldean au) *Irakatsi* (Enseñar) eta *Erakutsi* (Mostrar) ere.

Lege orek eta beste fonetikako lege batzuk, pozik alkareri lagun egiñ oi-deutsee, ta bitzuon artean alperik galdu ere bai itz ederik asko.

Onetariko jasokun irakasgari bat, euskerazko EREILE itzak agertzen deusku; itz orek, euskaldun askoen agoetan, ezta kigu zer esan nai daben: ala *erAile* (asesino), *erEile* (sembrador) *eragi(N)le* (removedor) ala *eraGile* (levantador, ediricador). Ementxe, naste onetantxe daukagu, ziur-ziur, lau itz oretatik bijen makaltasun edo erijotziaren zegaitija: galdutzako itz bijok, *Eraile* (asesino) ta *Eragile* (levantador) dira, dakizuen bezela.

Izkereen jokeria oretara dala' gaitz geunke bada airatu ditugun itz bikoitzoi (*atE-atA*, *Untzi-Ontzi* ta abar) eta euren antzekoai, askok nai dabeen eraz (bakoitza bere ikurpen bereziaz) lura artu erazotea: zuzen ere, egiñen ori lortutea ikusi dogun alkar-erakarte lege orek nai daben iruntsi-aldera izkeriari jokatu erazotea litzateke-ta. Izkeraak, bariz, ezin eroan giñaikez eurak agertzen dituen berezko indaren kontra; irakurgai bidez, eskola bidez, jarispen asko lortu geinkez: baiña izkera-indaren arira ibilita, berezko indarok onura-bideruntz al daigunez zuzenduta izango da, bestetara ez. Ezteigun bada idazleok oretariko itz-bikoitzik soltzen alegiñik egin; erijak berak soiriuz-ureratzen dituanoi guztiz bardindu barik eutsiten alegiñ egitea ere, naikoa dogu zeregiñik.

(1) Ikusi DAUZAT, *La Géographie Linguistique*, 68 gn.or.

(2) DAUZAT, *Géog. Ling.* 54 ta 72 gn. or.

Iztegijaren aberastute edo txirotze, itz batzuen jaijote, beste batzuen ilte, eta izkeriari jagokozan onetariko gora-bera guztijak' izkuntzalari begi-zorotzenari ere sari ondo ikusten gaitz jakon ainbateko txiki, ta adimen-argijenari ere zeatz zenbatuten nekez litzakijon besteko ugari diran indar berezijen ondo-enak dira (1). Orixe eragertzearen (izkuntz-ikasteetatik uruntxu dabiltzan euskalzaleai orixe oartu e azotearen) aitatu ditugu, adi-bidezko lau gertakunok; eta eztitugu izkuntz-jakintziak irakasten deuskuzan oreen antzeko beste gertakun geijako ta geijago eragertzen, naikoa dira laurok argi-izpi batzuk adimeneratzeko-ta.

Erderatiko itzok ere (asko ta asko beintzat) eztira bada, arako geijagoko barik, beingo baten, geure iztegira, moltsoan eta piloka irulitako atzeritar lapu, kalte-gile ta bake-apurtzailak. Sari ta sari' aberastasuna ekari deuskue, argitasuna, zeatz-tasuna; gure iztegiko itzeen alkar-erakarte, tril-egite, laburegitze ta beste naste-bide batzuk sortutako marapiloak azkatzea ta euren arteko bakea ere, ekari leikeguen, erdel itzok, mundu guztiko izkerai eroan oi deutseen bezela.

Ezteiguzan bada eurok itsu-mustuan gorotau, asko ta asko guztiz maitagari baiño ezti-xugu-ta.

Onetan ere, jakiña, mundutar gauza orotan bezela, goi-beiak bear dabe. Erderatikoak dira, adi-bidez, arako aintxiña-aintxiñatik geure-eritaratutako ta gorengo mailakotzat artu geinkezan *Kipula* (edo *Tipula*), *Pago*, *Urki* eta abar itzak; ta erderatikoak, Irazusta Eretoreak, gorago esan dogun bezela, euskeriari ezari nai izan eutsazan beerengo mailako *Prinsipioa* ta *Fiña* ere. Aor ditugu eskilara luze baten buru-oinak; birarteko mailok, asko dira.

Erderatiko itzok bada maila askotan imini geinkez; batzuk beste batzuk baiño eskubide andijagoa dabe, euskenak ontzat artzeko. Eskubide onen neuri eder, garbi ta zuzena' itz bakoitzak euskeldun jatoreen artean lorturik alaben zabalgoa da, gorago esan dogun bezela. Neurijau, lenengotzat, nagusitatz artuta, ziur-ziur goaz, len aixaturiko izkera-indaren alde, euren arira: naiz-eta ezagutu ez ondo (ezta erez ere ta) indarok eta euron legeak. Beste neuri-bide guztijak, lenengo oren urengo ta beroren laguntzaitzat artzekoak baiño eztitugu.

Arindu daiguzan bada kanpotiko itzoen kontrako beltoki ilunegijok: itxi daijogun, alegiñez, geure erijaren iztegi zabalgo andikoari bakean, eta emon geure indarok beste lan onuratsugoko baten: iztegiorek (erdel-itz zabalgo andikoak ontzat emon-da-gero ere) agertzen deuskuzan utsuneak al-bait ondoen eta lege-bidezen ornidu ta beteten.

Ta lan auxe dogu, itzaldi onen asijeran esan dogun bezela, urengo atal onen gaija.

## II

Euskeriak, berau uri askotan eta baseri geijenetan bizi dan bezela artuta' gauza erikoi ta samurtxuen gain itz-egiteko naiz idazteko' idazle askok uste dogun baiño iztegi aberats, zeatz eta zabalgo aundijagokoa dau; auxe, bene-benetan sinistuta diñogu, euskaldun lauai, eritarai, sari euren izketia entzuten pozik egon-da-gero. Euskeria geuk ere eurak bezela bagenki' orain arte erabili dirugun irakurgai geijenetan, ez geunkean zeiten itz-bari ta beste zabalgo txikiko askogaz geure irakurgeijok ilundu, zanakotu, makaldu ta gauzaeztandu.

Baña, lenago ere askok oartu eragin izan daben bezela, ortxe dago bada untzea; orixe, erderak gitxi kutsau ta eztitutako euskaldunen izketaori erez eta txairo erabiltean; euskel-idazleontzat, batez-ere: bakotxaren jakintza edo eskolantza aundijago edo txikiagokoa, erderazko liburu ta maixuakin ekirlian ibilita geureganatu dogunez gero.

Gai arin eta erikoi oreotarako, eztau bada euskel-iztegiak utsunerik utsuneok, geure ez-jakiñak erasortzen ditu. Erijarentzako idazten dirugun liburu, izparingi ta beste irakurgaietan, naiz berari zuzenduta jaurtireko itz-aldi ta sermoietan' ez-geunke bada iñoiz ere maixu-sundezko euskerarik erabili bear: berari ikasitako ta berak auz darabilzan itz ugari, bizi, esanguratsu ta argijetatik iñora urten barik aurkitu geinkezan utsez ornidutakoa baiño.

Baiña gai erikoi oreotarako ezpada ere' agertzen jakoz gure iztegiari, sori-txarez, utsunerik asko, gai astun eta gaitzago diran beste batzuk azaldu bearean aurkitzen danean. Orduantxe ugari: gure itz-bari-eraltze lan atsegingariari, beti gogoz jardungo leuskijoenok eurok ere, ase ta aspertzeko lain ere bai.

Onako utsuneok eta bete-uneok zeintzuk ditugun zeatzago eragertzeko, izkuntzalarijak irakasten deuskuen izkera-atalkatze egoki-egoki batek lagun egingo deusku.

Atalkatze ori ona emen zer dan:

Izkera bat mintzatzen dabeen gizonak, euren bizimodu, biargintza, opesijo, zeregin, zale-

---

(1) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, Troisième partie, Chapitre III.



tasun eta abar bidetzat artuta' pilo edo talde askotan berezi geinkez. Eta onetariko pilo bakoi-tzian batu geinkezan gizonak' euren aihar-arteko *izkera berarija* izan oi dabe, batez-ere izte-gijari jagokonez (1). Orako *izkera bezarijok*, mota askotarikoak dira 'eleiz-gizonak, erlijiñoko autuetan erabili oi-daben lotsa ta erespetugarizkotik asi' ta amak umetxuai zuzendu oi-deutsan samur eta biotzetikoragiño; juezak auzi ta epai-arazoet an mintzatu oi-dabeen zorotz, garatz eta zuzenetik asi' ta ijiñuak euren azerikeri ta satorkerijetarako eraldurik alabeen zearkariragi-ño; bere baso, solo, landa, zelai, ta etxeko gauza ta arazo guztijen izenak zeatz eta garbi berez-ten dituan gure baseritararenetik asi' ta oretariko gauzen izenik umetxo batek baiño geijago jakintzeka' zentzun, gogo, uste ta arima naiz gorputzari jagokoezan beste gauza gurenenak, be-rezi, izentau ta eragertzeko, itz bikain eta sakon guztijak buruan dituan filosofilari jakitunar-eneragiño; itz batez, langitza, jolasgintza, jakintza ta gizonaren beste ekin-bide orok dabe euron iztegi berarizkoa, ekin-bide bakoitz oreetan oitu ta ekandutakoak baiño ondo ezagutzen eztabeena.

Onetariko iztegiyen aberastasun berezija, uste izan leikean baiño gorago eltzen da sari. Azkue jaunaren iztegi naguzijan ikusi daikeguz, adi-bidez, *Gaztaiña* itzari jagokon irakurgai-txoan, jaki onen ainbat mota, bakoitza bere itz egokijaz izentauta; izen guzti oneek, geure base-ritarak eta gaztaiña-ondo edo igalijari buruzko lanen bateri ekiten deutsan beste norbaitek baiño eztitue ondo ezagutzen (2).

Onetariko iztegiyen zabalgoa, gorago erakutsi dogunez-beste era batera aitu bear dogu. Gorago esaten izan dogun zabalgoa, ITZArena izan da; orain airatzen dogunau, GAUZIarena. Izkera berarizkoetan' *gauzia* izaten da bada beroni jagokon lagun-talde bakoitzak baiño zeatz ezagutzen eztabena ta jakiña, *gauza* oren izena ere, lagun-talde orezaz kanpora, gitxi entzu-tekoa izan bear; baiña oregaitik ezin esan giñei izen ori, itz berarizko ori, zabalgo txikikoa danik; *gauzia* ezagutzen dan neurijan bere *izena* ezaguna danean' *izen* au zabaigo osokoa da. *Barautz* eremintia. adi-bidez (erderazko *broca*) burdiña ta zur langileen artekoa baiño ezta; onetariko langile euskeldun askok ezagutzen dabe *barautz* itza, eta naikoa da orixe itz oren zabalgoa ere aundija dala esan al izateko. *Piñu* (erderazko *Pino*) bariz, GAUZA ezaguna dogu euskaldun orok; baiña ez, gitxi baiño, landara oren euskal-izen garbija, *Ler* deritxona; oregaiti ITZ garbi au zabalgo txikikoa da, *Piñu* erderatiko itzak kendu deutso zabalgo oreri zati andi-andi bat-eta.

Izkera berarizko oreen iztegijetako *itzak'* ezagutu oi dira iñoiz, bakoitzari dagokion lagun-pilo ingurutik kanpora ere, baiña geijenetan, *gauzia* ez, bear dan zeatztasunaz. Euskaldun orok dakigu, *Elori*, *Zumar*, *Urki* ta abar, landara edo zugatzen batzuk dirana; baiña ezta kigu orixe baiño, baseritar, arotz eta euron antzera zugatz-lanai andik edo emendik lotuak dagokijoezan beste norbaitzuk izan ezik (3).

*Itzoen* eta *gauzoen* zabalgoari buruz, izkuntz-jakintziak irakasten deuskuzan oarok gogoan eukiz' begiratu daijoegun bada orain, euskal-iztegiyaren esandako uts-une ta bete-uneai, izkera beraizkook bide-laguntzat artuta.

## LENENGO KLASETAKO IZKERA-BERARIZKOAK

Euskalerijon aspalditik bertokotuta ditugun erlijiñotza, lan-gintza, jolas-gintza, dendaritza, etxe-arazo-gintza ta abareri jagokoezanak

Ekin-bide guzti oneen iztegi berarizkoai burez ere' gauza erikoi ta ereztxoen gaiñ esan dogun ber-bera bir-esaten dogu: euskeriak, andik edo emendik erasortutako itz ugari, zeatz eta zabalgo andiko ta ondo zustrairuak diru erijagan, eta eztogu idazleok eskubiderik (ai-izaterik gitxiago) iztegi berarizko oreek aldatzeko; arazo oreetan, ikasle izan bear dogu ta ez maixu; ikasi, eus-keldun lauak, euren izkera berarizkoetan darabileen benetako zabalgodun iztegiya, ta agiri-

(1) J. VENDRYES, *Le Langage*, 293 gn. or.

DAUZAT, *Philosophie du Langage*. 128 gn. or.

(2) Lituani-eriko baseritarak, bertako aberien ule-koloreai, zenbat eta zelako izen bererijak ezarten deukeezan, ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 263 gn. ori-aldean.

(3) Ikusi J. VERDRYES, *Le Laugage*, 222 gn. or.

agiriko bidegabekeriren bat izan ezik' idatzi ortiko itzok ardura barik; eztago munduon, oretara idatzi daikegun euskeria txartzat emon legijan izkuntzalaririk: benetako euskeria dala autor-tu, ta egokijentzat etsiko eztabenik.

Onetarako, bear-beara dogu eri-itiz-iztegi berarizko bat eraltzea; iztegi berarizko au' Euskaleri osuon zabalgorik geijen daben itzak (erderatiko naiz euskeratiko) zeintzuk diran jakiteko asmoz egin bear da; ez itz garbijak bakarik (edo erdi-bakarik) pilokatzeko asmoz, orain arte egin izan dan bezela. (Onegaz eztoгу esan nai,orain artekook, beiñen eta bear-beareko ere izan eztitunik.)

## BIGAREN KLASETAKO IZKERA BERARIZKOAK

Atzeritik oraiñ agertzen jakuzan makiña, ereminta, jostailu, soiñeko ta komertzijotako naiz arezaz kanpoko beste tresna ta arazo guztijai jagokoezanak

Ekin-bide ta agerpide onei jagokoezan iztegiak' mundu guztiko izkereetan izan oi dira erderatiko itzez jositakoak (1), eta eztago oren kontra iñundik-iñora ere ezer egiterik. Atzeritar gauza oreek, gizonik-gizon, komertzijorik-komertzijo igaro oi-dira eritik-erira; eta. orako gizonok, gauza bakoitza, bere jarori-eritik dakaren izenaz izentatzen dabee, zelabait egin bear dabe alkar aituteko-ta. Azkenengo bitarteko edo dendarijak' izen oretxeikiñ artu ta, euren aldiz, olantxe ezagutu-erazo ta saldu ere egiten ditue gauzok, erijan-erijan; eta oretaraxe, iñor kon-turatu orduko, gauzia ezagutzen doan neurijan berean, jatoritiko arotz-izena ere zabaltzen eta zustraitzen doa eririk-eri; ta itzok bein zustraitu ezkerok' jakiña da, joan zan garbijak ezar-teko era ta ordua. Bear-bada izkel-zaiñ eta idazle garbi-zaleak dira, sari, oretariko gauza bari ta euron arotz-izenak ezagutzera beranduen eltzen diranak. Ameskeri bareikarija litzateke bariz, atzeri-itzok zustraiXu eztaitezan, arako muga-ate edo aduana antzeko gauza bat imini nai izatea; aizeari atek imintea bezelatsu.

Oretariko itzeetan idazleok lortu geinkeena ta lortzeko alegiñ ere egin bear doguna' urengo auxe da: arotz-itzok, euskaldun jator en belari ta agoetarako egokitu ta samurtu, oretarako erijak berak zaindu oi-dituan itz-ots lege ta jokerai lagundu ta jaraituz (2).

Arotz-itzok euskeraltzeko *gaur bizija* alabeen legerik ezagunen eta erikoi-enak, ona emen zeintzuk diran:

1-o Espaiñeraz (adi-bidez) *R* letriaz. asten diran itzai' euskeriak beronenganatzeko *E*-letria aure-ezari oi deutse. Ikusi adi-bidez, *ERamu* (Ramo), *ERenta* (Renta), *ERifa* (Rifa), *ERoma* (Roma), *ERuperto* (Ruperto), ta abar:

2-n Espaiñeraz *D* ala *R* letriaz amaitzen diran izen orokari' euskeriak -*E* atze-ezari oi deutse geijenetan. Ikusi, *mezeDE* (merceD) ta *abaDE* (abaD), *umoRE* (humoR) eta *koloRE* (coloR).

3-n Espaiñeraz *L*, *R* ala *N* letriaren urengo *S* ala *Z* datorenian, euskeriak azkenengo bijok *TS* ta *TZ* tan biurtzen ditu. Ikusi, *poLTSa* (boLSa) ta *aLTZau* (aLZar), *beRTSo* (veRSo) ta *baRTZelona* (Barcelona), *peNTSatu* (peNSar) eta *daNTZa* (daNZa).

4-n Espaiñeraz -*ON* itz-zatijaz amaitzen diran itzai' euskeriak itz-zati oren ordez -*OI* (3) imini oi-deutse. Ikusi, *jabOI* (jabON), *algadOI* (algodON), *orfe OI* (orfeON) eta abar (4).

Espaiñerazko -*ON* itz-zatijorek bere aurretik *NI*, *ZI*, *JI*, ala *SI* baleroa' orduan euskeriak

1) DAUZAT, *Philosophie du Langage*, 104 gn. or. MICHEL BRÉAL, *Essai de Sémantique*. 283 gn. or

2) Ikusi DAUZAT, *Phil. du Lang.* II7 gn. or.

3) -*OA*., -*OE* ta -*OIN* ere imini oi-deutse iñoiz eta iñun.

4) Gerrukan gagozan ezkerok, bertoko izkera-gertakun polit bat eragertu bear deusuet.

Uri onetan ere, erderazko -*ON* amaiki ori, euskeraz, -*OI* tan biurtzen da. Baria iruntzi-aldetara ara bai, itz baten beintzat. Emen, jostun edo sastreren batek soiñekoa, oker-uneren bategaz josten dabenean (esker-aldetik, eskuma-aldetik baiño laburago edo luzeago alde baten tuntur edo bestean apal, naiz beste edozein bardineztasun edo oker-unegaz josten dabenean) oker-une onen euskeraz *ALDEGOI*a esan oi-deutse, gernikar emakumeak. Ta erderaz diarduenean eres izkera onetan itz egokirik aurkitu ezin dabelako edo, euskerazko itz polit ori erabili oi-dabe; baña gure -*OI* amaikeria, -*ON* etan biurtuta. Onan, euskeraz «Soiñeko orek *aldeg OI andi* bat deko» esan oi-daben bezela, erderaz «Ese vestido tiene un gran *aldegON*» esan oi-dabe.

-ON itz-zatijoren ordez -O (i) utsik imini oi dau, (bizkaieraz Ñ O.) Ikusi adi-bidez, *komuNIñO* (comuNION) *oraZIñO* (oraCION), *erleJIñO* (reliGION), *okaSIñO* (ocaSION).

5-n Espareñaz O letriaz amaitzen diran itzai, euskeriak, geijenetan azken letra ori -U tan biurtzen deutse. Ikusi, *gobernU* (gobiernO), *bixigU* (besugO), *pixU* (pesO) ta abar.

6-n Espaiñeraz I letriaren urengo L ala N datorenian' euskeriak (tokirik geijenetan beintzat) X ta Ñ tan biurtzen ditu azkenengo bijok. Ikusi Ilara (hILera) ta *eskIXoi* (esquilan), *maklÑa* (máquINa) ta *pIÑu* (pINo) (2).

7-n Espaiñerazko aditzai, eurok euskera-antzekotuteko, bádakizue zelako aldakuntzaak eraso oi-deutseguzan: espaiñeraz -AR itz-zatijaz amaitzen diran aditzaak' euskeriak -ATU (bizkaieraz -AU) gaz azkentzen dixu. Ikusi, *kontAtU* (contAR), *ernegAtU* (renegAR), *erezAtU* (reZAR) eta abar. Espairieraz -ER ala -IR itz-zatijaz amaitzen dirianak bariz' euskeriak -ITU (bizkaieraz -IDU) gaz azkentzen dixu. Ikusi *mobITU* (mover) eta *konberitzZTU* (convencer), *prijITU* (freIR) eta *sentITU* (sentIR) (3).

Lege izenaz agertu ditugun zazpi aldakuntz (4) orezaz gaiñera, beste asko ta polit-politik egilen ditu erijak, arotz-itzolr euskerazkotukeran; baiña eztira erez eurok lege-peean ezarten eta orexegaitik eztitugu emen eragertzen baiña idazleok belarijak zur euki bear ditugu olako aldakuntzaok, erijak bein zustrairu ezkeru, geure idazkijetara eroateko: eurok emoten deutse sari izkerai euren kolore berezi ta kutunena-ta. Arotz itzok beraganatzeak, euskerian txukuntasun eta bitxitasunik kendu leikionen bildur laregikoa dabeenak' aor dabe ordain-bide ugari ta polita ta izkuntza legeai jaraituz, izkeriaren berezko indararen arira ibilti, jariztekoa gairiera, ez or geuk geure buruz ibilira, geure ikaste-gelatik atara geinkezan asmokeri alperikoen antzekoa.

## IRUGAREN KLASETAKO IZKERA BERARIZKOAK

Erixar arazoez goirikoak; goi-jakintzai jagokoezanak.

Izkera berarizko oneexen iztegiak dira, euskeraan, utsunerik aundijeneakoak; eurok dira beraz garantzitsuenak ere, irakurten diardugun lan onen gaijari, buruz.

Jakintza-iztegiak, zabalgo gitxikoak dira edo-nun; gizon jakitunak baiño eztitue zeatz ezagutzen, eta jakitunok lagun gitxi batzuk baiño ezтира mundu-eri bakoitzian.

Mundu-eri bakoitzeko jakitunok bariz, erbestekoakin alkar-aitu beara dabe beti; jakintzia, munduko jakitun oroek ekiriez eragi ta aureruztutzen dan lan eten-bakoa da-ta (5).

(1) -ONE ere bai, Prantzi-aldeko euskaldunak ta Bizkai'ko eri batzuetan -ÑOI ta -ÑOE ere bai»

(2) Ta oneexen antzera ezari oi-deutse erijak, toki askotan. *izpijakera* izenaz ezagutzen dixugun beate aldakuntza geijenak ere.

(3) Agiri denez, euskeriak erdel-aditza, eztau infinitivo-eratik artzen *participio-eratik* baiño erderazko *contADO* tik kontATU, *movIDO* tik mabITU, *sentiIDO* tik sentITU. «KomenI» ta «merezI» euskal-aditzak, infinitivo-eratik erakarajak dirudije onegairik «merezI det» *merezco* (presente) da bardin «komenI yat» ere, *me conviene* (presente); «sentITU det, mobIDU yat» ta abar bariz, aldi-igarokoak dira.

(4) Lege edo arau oneek bete barik utzi edo aldatu ere egiten ditu erijak iñoiz, baña gitxitan, Ona emen orako arau-izte edo aldatze batzuk

LENENGO LEGEARENAK. a) ERELijiño izan bearean, ERLijiño; bardin ERLekija ERLoju. ERLuz, ogERLeko, ERNegau, ta abar.

b) ERAza izan bearean, ARAza ta antzera edo bardin ARAtoi. ARAtijo, ARAija, ARAijo. ta abar.

d) URUfiña (ta ERUfiña). IRIngolada (ta ERIngolada), IRIXa ta abar.

BIGAREN LEGEARENAK. Españeratiko. ataud Gernika-aldean ataute asan oi-da latiñetiko. birtute, borondaTE ta abaren antzera. Madrid bariz, MadriLE esan oi-da euskeraz edo-nun. Eta abar

LAUGAREN LEGEARENAK. Lagun izenak eztitu lege orek baruari artzen; onegaitik, erderazko *antON* izena, erijak euskeraz ere bardin esan oi-dau; ta olantxe *ilariON*, *melit ON* eta abar ere. Toki izenak bariz, geijenetan baruan artzen ditu aragON = *arag QI*, mondragON = *mondrag OI* edo *mondragOE*, *mundraUE*).

BOSKAREN LEGEARENAK. -IJO ala -IÑO gaz amaitzen diranak dira utzi oi-daben geijenak *presilIJ O*, *eskuplarIJ O*. *enterarIJ O*; *demonINO*, *liNO*; ta beste banakaren batzuk.

(5) Ikusi MICHEL BREAL, *Essai de Semantique*, 286-287 gn. or.

Orixe-dala-ta, antxiña-antxiñatik ezagutu izan dira munduon «izkera-jakitunak» eritxoan izkera orokar eta goitiarak; eurok jakintzeetarako izkera bakartzat, eri askotan artu izan dira mota askotariko izkeradunen erijetan. Grezitarena bat, sortz-alde guztijak jakitun-izkeratzat artua. Josu-Kristoren jaiotzia baiño irureun urte lenagotik asi' ta Kristotar aldijaren azkenetararte; latin izkerja beste bat. Europako sartz-alde guztijon, eromatar alditik asi' ta, orain bi-iru eun-urtekorarte. Eta bardin gertatu da munduko beste eri aureratu oroetan ere (I).

Europako sartz-alde onetan, jakintzeetarako latin izkeria bakarrik erabilteori bertan bera utzi zanetik' gauzok beste modu batera eraltzen dira; eta era-bide barijau, atsegin izan bear litzakigu, zabalgo gitxiko izkeraak ditugun erijoi. Orain, jakintzeetarako, latin eta griegotiko zustraijakaz, iztegi orontzako bat eraldu da ta eraltzen da; ta berau, Europa-alderdi onetako izkera orok eurontzakotu dabe: bakoitzaren nortasunarentzat ezetariko beerakuntza barik, eta eritza askotako jakitunen alkar-aitzea, bide orez, ederto ereztuteo dalarik.

Ingelestarena, ezta latiñetiko izkeria, ta gure euskeraonek bezela arek ere ereztasun aundija dau itz-alkartze bidez itz barijak eraitzeko; baiña alan-eta-guzti ere, iguin barik batzen da bere 115 miloi ta geijago lagunekin, Europa-alderdi onetako jakintza-iztegi batasun oretarako: euskaldunoi (sin lagun gitxiko izkeradunoi), ikaspide edera oretaraxe emoten deuskula. Eri aurerakari ta egin-giña ei-da Ingeles-erija; agiri dau, arazu oretantxe ere.

Europa-alderdi onetan, euskaldunok, geu bakarrik, batasun oretatik kanpora gelditzea' eztirudi zentzunezko ta onuratsu litzakigunik. Bestetara egin bear geunkeala deritxogu: geuretzakotu guk ere, jakintza-iztegiari, itzai euskera-antza emoteko gorago airatu ditugun aldakuntza legeak bear danean ezaririk.

Esandako jakintza-iztegi-batasun oretan' alde batetik eromatiar izkera-taldea (prantzitar, italiar, espainiar, portugaltar eta abarenak), eta bestetik ingeles-izkeria sartzen dira guztirtxara ija 300 miloi lagun jaiotza-izkeraak. Alemantar izkeriak ere, ondo jagokonean bide orexeri jaraitzen deutso, baiña sarij agotan, lendik beretzakotzat diruzan itzak zustraijat artuta eraltzen ditu jakintza. itz-barijok (2).

Itz-barijok eraltzeko gaitasun eta izate-eriarri begiratuta, gure euskera (len ere esan dogu), ingeles eta aleman izkereenantzeko dogu: onek, gure ori bezela, itz-alkartze bidez (itz bi, iru, naiz geijago bata-bestier ezarixa) itz barijak erasortzeko gai dira-ta. Eromatiar izkeraok, gaitasun eder eta balijo aundiko ori oso neuri txikijagotan dabe eurenaz.

Ingeles eta aleman izkeraok, badau gure euskera onek beste antz-alde bat ere: eromatiar izke. raakin gramatikazko senidetasunik ez izatea iztegi bariz, erijok alkarekin dabeen artu-emon aundijago edo txikijagoak erasota, gure ta ingeles izkeraok askoz dira eromatiarakin adiskodeago alemanterena dan baiño. Batez ere gureau, nai-ta-nai-ez izan bear, alde guztietatik eromatiar izkera orez inguraturik agertzen jaku-ta.

Dana dala, ingeles izkeriak eztau alegiñik egiten bere jakintza-iztegi, esandako itz-alkartze bidez aberastuteko ta garbitzeko oretarako oso gai izan aren, utzi bide ori ta, gorago esan dogun bezela, eromatiar izkeraok bat egiten dau bere-burua.

Era-bide berera ta ereza ingelestarenau; ta onura aundikoa ere bai: esan dogun bezala 300 miloi la unen izkeretako jakitun-itzak zustrai bardiruz eraldurik' mundu guztiko gizon-jakintsu askori, jakintza-autuetan bakoitzak bere izkeria erabilita ere, alkar-aituteko bidea ereztuten deutse-ta.

Alemantarak bariz, ikusi dogunez, onura oreri ezteutso ainbeste begiratzen, eta sari, jakintza. itzok, bere izkera-zustraijez eraltzen ditxu. Alemantar. izkeriaren jakitun-itzok, zabalgo aundija dabe alan-da-guzti ere izkera ori umetatik ala gero ikasita dakijenak, asko diralako (75 miloez gora) alde batetik; eta bestetik, bere inguruko eslabitar izkerai (polonitarari batez ere) (3) itz asko artu erazo deutsezalako. Gaiñera alemantarori European, eslabitar eta eromatar izkera talde bijen erdijan agertzen dalarik' egoki jatorko alde guztietatik, jaraitzen daben erdi-bakar-bideori.

Euskaldunontzat, alemantaren era-bidea ala ingelestarena aukeran bagenduz, alemantarenori litzakigu, noski, bijotzekoen eta atsegingarijen; baiña ez, iñundik iñora ere, bidezkoen eta lortuga-rijen. Ona emen oretarako geunkezan eragozpenak:

1.<sup>o</sup> Euskeldunok gitxi gaza oretariko jakintza-iztegiari geuk bakarrik bizitza-izardiya emoteko. Itzaak, erabili berotasuna bear dabe jakintza-iztegiok bariz, eztira eri lauaren agoetara jatxiten; eta eri lauaz kanpora, gure jakitunak, bakarrik, gitxi dira jakintza bakoitzean, euroi jagokoezan iztegi berarizkoak eraldu ta, batez ere, zustraiXu erazoteko. Jakintzeetako GAUZAK eurenaz dirala zabal o txikikoak esan nai dogu, ta jagokoezan itzak bizi al izateko' eri aundi ta askotara luzatu bear eroak Aor ingelestar izkena, gure onen aldean 300 bidar lagun geijagoena izan aren ere, jakiritza-itzok eraltzeko, len esan dogun bezela, beste izkera batzukin zergaitik batzen dan.

2n. Alemanitar izkeriaren era-bideari jaraitzeko dogun bigaren eragozpenak ere' lenengooren zegaitija dau itur-buru. Gure erijonek ezin argitaldu leikez, alemanatarak bezela (4), munduko jakintza

(1) A. MILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, Chapitre XII.

(2) J. VENDRYES, *Le Langage*, 269 gn. or.

(3) A. MILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 240 gn. or.

(4) A. MILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 294 ta 295 gn. or.

orori, euron aurerakuntza guztijetan egunetik-egunera jaraitzeko bezeribat liburu, erebista ta abar; onexegaitik euskaldun jakitun ta jakin-zaleak, euskerazko irakurgaijez gainera, beste izkera zabal o aundikook ere sari izango ditue irakuri beara; ta izkera oneek eta gareak, jakintza-itzak zustrai bardi-riezko ez izateak asko gaiztuko leuskijoe egin-bear ori.

Alemanitar izkeria, tokiz, bere-biziko ondoen egertzen da esan dogun bakar-bidetzarako baiña gure euskerian, eromatiar izkereeaz alde guztijetatik inguratuta dogula' uretan buzti barik egotea baizen gaitz litzakigu, jakintza-itzeetarako eurakin bat ez egitea (I).

Jakintza-iztegi oretarako bada, eredutzat edo nauritzat, ingelestar izkeria artu bear dogula deritxogu; baiña jakiria, aundiz-aundi ta ez itzez-itiz eta zeatz-zeatz, au ezin lei iñoiz onetariko arau za-baletan-eta (2): ingeles izkeriak, beronen itz-zustrai bidez eraldutako itzaz gauza bat izentatzen dabe-nean' guk ere or-or egin geinke beste orenbeste; baiña, utzi etxeko zustraijok eta eromatiar izke-rakin burua bat eginda ersltzen dituan itzak' guk ere artu geinkez ardura barik, geureak eraltzeko zus-traitzat. Gorago ikusi dogun bezela, onegaz eztau ezer ere galtzen gure izkera onek. eta irabazi bariz' bizi al izateko gura nai ez bear daben osagiri nagosijenetariko bat, urean.

Bádakigu, neuri au ontzat artzeko, euskal-zale batzuen gogoak urun agertzen jakuzana. Oneen-tzako, aleman-izkeria bera ere ezin artu geinke neuri-bidetzat aleman-izkeria baiño urunago, zus-traitsuago, joan nai leukie esandako bakar-bide oretan.

Urengo agerkai onetan ikusten dogu, aleman-izkeriak berak ere, esandako bakar-bide ori utzi ta beste europar geijenakin bat eginda beretzakotzen dixuan, itz-eralketa batzuk, aibidetzat. Bada itz oreexek ere (ta euron antzeko oro be bai noski) euskal-zustrai eraldu bear dirala uste dabe, gure garbi-zale ase-eziñok. Ikusi:

<b>Españeraz</b>	<b>Prantzeeraz</b>	<b>.... (3)</b>	<b>Ingeleseraz</b>	<b>Alemaneraz</b>	<b>Euskeraz</b>
<b>Barómetro</b>	<b>Baromètre</b>	.....	<b>Barometer</b>	<b>Barometer</b>	<b>EGURAZTI</b>
<b>Academia</b>	<b>Académie</b>	.....	<b>Academy</b>	<b>Académie</b>	<b>-ZAINGO</b>
<b>Anarquismo</b>	<b>Anarchisme</b>	.....	<b>Anarchism</b>	<b>Anarchismus</b>	<b>LEKABETASUN</b>
<b>Anarquía</b>	<b>Anarchie</b>	.....	<b>Anarchy</b>	<b>Anarchie</b>	'
<b>Almanaque</b>	<b>Almanach</b>	.....	<b>Almanac</b>	<b>Almanach</b>	<b>EGUTEGI, EGUNDI</b>
<b>Calendario</b>	<b>Calendrier</b>	.....	<b>Calendar</b>	<b>Kalender</b>	' ,
<b>Máquina</b>	<b>Machine</b>	.....	<b>Machine</b>	<b>Machine</b>	<b>LANGAILU</b>
<b>Altar</b>	<b>Autel</b>	.....	<b>Altar</b>	<b>Altar</b>	<b>OPALARI</b>
<b>Museo</b>	<b>Musée</b>	.....	<b>Museum</b>	<b>Museum</b>	<b>TXEGU</b>
<b>Maná</b>	<b>Manne</b>	.....	<b>Manna</b>	<b>Manna</b>	<b>OSTARI</b>
<b>Literatura</b>	<b>Littérature</b>	.....	<b>Literature</b>	<b>Literatur</b>	<b>IDAZKINTZA</b>
<b>Metro</b>	<b>Mètre</b>	.....	<b>Metre</b>	<b>Meter</b>	<b>NEURKIN</b>
<b>Matemáticas</b>	<b>Mathématique</b>	.....	<b>Matematics</b>	<b>Mathematik</b>	<b>ZENBAKIZTITZA</b>
<b>Aritmético</b>	<b>Arithmétique</b>	.....	<b>Arithmetical</b>	<b>Arithmetisch</b>	<b>ZENBAKIZTIAR</b>
<b>Antropología</b>	<b>Anthropologie</b>	.....	<b>Anthropology</b>	<b>Anthropologie</b>	<b>GIZATZAZKUNDE</b>
<b>Músculo</b>	<b>Muscle</b>	.....	<b>Muscle</b>	<b>Muskel</b>	<b>ZOZKO, GIAR</b>
<b>Biceps</b>	<b>Biceps</b>	.....	<b>Biceps</b>	<b>Biceps</b>	<b>ERO-BIKOITZ</b>
<b>Electricidad</b>	<b>Electricité</b>	.....	<b>Electricity</b>	<b>Elektrizität</b>	<b>TXIMISTA-INDAR</b>
<b>Eléctrico</b>	<b>Electrique</b>	.....	<b>Electrical</b>	<b>Elektrisch</b>	<b>TXIMISTA</b>
etc.					etc.

Alemantaroi dan-ere, izkuntzalari askok (4) bota oi-deutse arpegitara euren izkerezako bakar-bide zaletasuna, laregikoa dala-ta.

Bada, guri, euskeldunoi, eztakit zer esan leikiguen!

Ezteigun gure iztegi-eraltze lana, jolas-pidetzat, aldi-igaro-garitzat artu; ta ¿ez litzake orixe, ain zabalgo gitxiko gure izkera onegaz, ez ingelestar, ez alemanitar ez iñok jaraitzen eztabe neu-rizko bakar-bide otz eta txirotik zear, itz-bari eraltzen panparoi elkitea?

Bakar-bide ori artzea, iñoizkorik kaltegiñena, oraintxe litzakigu zuzen ere. Munduon gauzak

MEILLET, *Ibid.* 212 ta 318 gn. or. ikasi, bakar-bide orek berorenez agertzen diruan alde-on eta alde-txar batzuk ere. Baita ikusi gai oreri buruz, CH. BALLI, *Le Langage et la Vie*, 74 gn. eta urengo or. ere. Eta AMERICO CASTRO-ren gorago aitatutako idatz-lanaren 47-48 gn. or. Eta J. VENDRYES, *Revue Celtique*, Vol. XXXI X—N.º 1, Chronique... IX. eta abar.

Ikusi J. Oraitiño erderatiko itzok, sari, bardin zamarak izaten ei-dira munduko izkera askotan.

(2). VENDRYES, *Le Langage*, 268 gn.or.

(3). Puntu oneek, ITALIERA, PORTUGALERA eta eromatiko beste izkera oro esan nai dabe. Ezti-tugu imini euroi jagokoezan itzak, Prantze-Españerazkoen zustrai bardiñez eralduak dirana edonok daki-ta.

Eta berdin gertatzen da eromatiko eztiran europatar beste izkera askogaz ere: «QUANT AU VOCABULAIRE DES LANGUES EUROPÉENES (diño A. Meillet'ek-Ibid. 320 gn. or.), IL COMPTE UN NOMBRE IMMENSE DE TERMES COMMUNS SOIT A TOUTES CES LANGUES, SOIT A BEAUCOUP D'ENTRE ELLES . . . » \$

(4) MICHEL BREAL, *Essai de Sémantique*, 286-287 gn. or.

A. DAUZAT, *La Philosophie du Langage*, 114 gn. or.

A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 294 gn. or.

daroen bide-eriari begiratu ezkeru, bear-beareko izango da (A. Meillet jakitunak iragarten daben bezela) (1) mundu-eri-arteke izkera orokar laguntzaile bat jakintzeetarako batez-ere. Izkera orokar oren iztegiya bariz, latin eta griegotiko zustraijez eraldua izango da. (2)

Latin-griegotiko jakintza-iztegiyon guk orain ez euskeraratzeaz, aor bada beste *zireungaten*-kalte aundi-aundi bat, gure ondorengo euskaldunentzat euroi, euskaria. izkera orokar oretatik beste eri-izkeraak baiño izugariz urriñago izateko bideetam iminxen deutseegu-ta.

Michel Breal izkuntzalari aundi ta ospatsuak oartu erazoten deuskunari jaraituz (3), eztogu nastau bear onako gai ta arazo buru otzez erabagitekoetan, eri-zaletasun eta beste biotz-berotasu-netiko gurari ta maitekeririk; aberi-zaleok, eri-zaleok, gure biotzeko sua, aberi-izkeria zabaldu ta sendotu erazoteko biztu bear dogu; ta utzi munduko izkuntzalari jakitunenai, izkuntz-jakintzeetako maixutasuna; izkeraok landu ta zaintzeko irakaspideak emoteko ta zuzen-bideak marketako jau-betasun eta eskubidea.

Jakintza-iztegi oreen artean, bádira darabilgun arazo onetarako berezi bear ditugunak ere eurok' kimika, botanika, zoolojija ta abareko itz batzuk dira. Jakintza oneetan, egunero estal-getzen ditue, jakitunak, izen barija bear alabeen gauzak (4): gorpuzki, landara, abere, izar eta abar; eta gauzaoi est algetzaileak ezari oi deutseezan izenak ontzat artu oi-dira munduuko jakintza-izkera oroetan. Baiña oso-osorik, izkera bakoitzaren fonetikiak eskatzen daben aldakuntzarik ere eraso barik. Oretariko itz geijenok, eztira gitxitan baiño erirutzen; eta eleuskigu euskaldunoi ere iguiñik emon bear, gure jakintza-idazkiietan izerrok oso-osorik erabilteak; eta oretariko, gauzaren batek euskeraz izen erikoia dabenean' imini berau, egoki danean, bestearen alboan, beste izkereetan oi dan lez.

## LAUGAREN KLASETAKO IZKERA-BERARIZKOA

### Literatura-izkeria

Eztago esan bearik ere: egijazko literatura-izkeria, bene-benetako berarizkoa da (5). Lite ratura-izkeriaren berarizkotasuna' izkera osoa, aberastasun eta edertasun bidetik' al dan geijer beti aurera eroateko berak agertzen daben jokera berezija da. Literatu-larija' izkeria zeatz tuten, zuzenduten, aberastuten eta argitzen beti alenginka diarduan langile zintzo ta balijotsu da ba. Baiña lan orek, eri-izkeratik laregi urten, ez urindu egin barik izan bear dau; bestela izkera bijoen alkar-arteke bardirietasun laregikoak berak makalduta ta gauzaeztanduten dan literatura-izkeriak eri-izkeriaren gain izan leikean eragire-indara. Literaturiak izkeriarentza imanak galtzaiduarentzat bezela dau erakarte ta beraganatze indara; baiña erakartzaileo erakartekoen ur zamar imini ezik' eztabe eragire indarrik, erasote-indarrik

Iztegijan buruz, semantika-aldakuntzeetan, eri-izkeria nagosi dan bezela' itz-barijak (itz-alkart bidez naiz itz batetik beste bat eratoriz) eraltzen' literatura báliteke geijago; baiña onetara ere Literatura-izkeriak' erijak ija elduan, ija bigunduta, ija umauta dixan arnari-aleak eratxi agertu baiño eztau egin bear. Arnari-ale barijok, oretara lortutako itzok, eurok ere, denporiaz, eri egin oi-dira; ta orduan euron aldiz, itz-erakarpidetzarako gai izan daixekez bariro. Eta oretara erija, literatu-larija ta *denporia* lagun dirala (ta ez bestela), aberastu oi-dira iztegiak.

Aor bada zegairik euskaldun literatu-larijak, eri-izkena lenengo, dan bezela, baiña sakon, za eta zeatz ezagutu bear daben euskaldunok eztogu, ikaspidetzat, beste eri askok dabeen bezela, a txirratiko literatura benetakorik; eztogu aukeran, eri-izkeria baiño, ta beronen iztegiya artu oin bakartzat. Literatu-lari otza ta murija daite bada, gaur, eri-izkeriaren mamin, azur eta arir bat eginda eztagoken euskarduna eri-euskeriaren iztegi garbi naiz erderatikoa, euron zabalgoa aunditasun edo txikitasuna, guztija asmau edo sentidu bear dau argi literatu-larijak bere gogo, adiñi ta bijotzian; bestela bere idatz-lanok, eztagikee erijaren gain ezetariko erakarte-inda eragite-indarrik urin geratu daitez erijagandik, guztiz otz, guztiz arotz, sari gertatu oi dan be

Literatura bidez erasortu daikeguzan itz-barijok, erez lura-artu al izateko' ona emen kondiziñotzuk edo baldintzatzuk lagun egin oi deutseen:

---

(1) A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*. Chapitre XXV eta Conclusión. 318 gn detik eta 334 gn'erañño.

(2) A. MEILLET, *Ibid.* 323 gn. or.

(3) *Essai de Sémantique* 282 ta 290 gn. or.

(4) Ikusi DAUZAT, *Philosophie du Langage*, 115-116 gn. or.

(5) J. VENDRYES, *Le Langage*, 321 ta 328 gn. or.

CH. BALLY, *Le Langage et la Vie*, 51 gn or.

Lenengo: itz-barijaren bear-izana benetakoa izan dairela; eztairela lendik zustraituta bizi, itz-baritzat agertu nai dogunaren ikurpen bardiñeko besterik; naiz itz-garbi, naiz erderatiko izan berau.

Bigaren: itz-barija eraltzeko aukeratzen ditugun itz-zar, izki ta beste gaijak' zabalgo aundikoak izan dairezala.

Irugaren: orako gaijak, argi ta sare agiri daitezala eraltzen dogun itz barijagan; fonetikako aldakuntza ta laburpenak, eztagijezala gaijak ilundu edo ezagun-gaitz biurtu. Itz bat, jaijo-bari dogunear' asmatzaileak argijen eretxi aren ere, beti izan oi da uler-gaitza irakurle askorentzat; eta orexegaitik, zustraitu arte' indartu arte' garbi agiri bear ditu bere zatikin edo atalkiñak; gero, itzori erikoitzen asi daitenean, ainbesteko argitasunik bear-ez-izatera elduaz-elduaz' erijak berak ezariko deutsoz, eruki barik, aldakuntza ta laburpenok itzori esan-erez eta entzun-goza bear dan neuriragirio biurtzeko. Lugiriak eta ortulauak euren lan oro, lurak eta egualdijak onuratuko deutseezan asmoetan egin oi ditue; antzera literatu-larijak ere; eta izkeriaren lur a ta egualdija bariz, erija ta beronen gogoa dirala diñogu bariro.

Aor bada euskaldun literatu-larijak aurean daben lan aundija; euskera eder onegaz, esakun bari txukun eta asmotsuak eragertzeko itzak ain garbi ta polito alkartzen dakijan izkera bikaiñ onegaz. Baiña, beti erderatiko itzak, itzez-itx ordez tuten ekinda ez: esangai barijak, irudigai barijak, gogogai, asmogai ta argigai barijak (sari beste izkereetan ez tiran bezelako itz berezijak) euskal-iztegijarentzat asmau ta irabasten aleginduta baiño. Zabalgorik bako itz-garbiz iztegija eraltze ta betete utsez, ezta lortzen izkeriaren aberastusuna; bizitzia daben iztegija bera, (al danik aldakuntzarik gitxienez) gai astun naiz goitarak, erez, eta ulerkor erazaltzeko, ganoraz eta jasez erabili, bijurtu, astindu, bizkortu ta gaituta baiño.

---

Itz bi amaitzeko.

Gaur, euskal-iztegijazko naiz euskera osoazko ekin-gaijak, agertze-alde bi ditue euskeriak orain daben aberastasunari eutsitea da bata, ta bestia' gaur-eguneko bizitza baritaronen aure-rakuntzeetarako gaitasuna lortu arte, euskal-iztegiatori aberastu ta zeatz-tutea. Baiña, egiñean, ekin-gai bijok batetara datoz: gaitasun ori jaristeko aurerantz sendo jo ezpadaigu' itxitasun ori bide dala, euskeriau berez-berez gauza- ez tandu ta bertan-beratan ilda geratuko da.

Guk, gaurko irakur-lan onetan, alegiñ egiñ dogu esandako gaitasun ori euskeriak zelan erezen lortu leikeango gure eretxi makala al-bait argi ta zeatzen eragertzen. Beste izkeraak, orain gureau bezela agertu izan diran orduan, zer egin izan alabeen eta zerk on egin izan deuten otz-otzez azterkatze ta ikusteak eroan gaitu, eretxi oli bidezkoentzat artzera. Bide ori jaraituz, eztoгу uste euskeriaren garaipena gauza gaitza litzatekeanik, izkeriau landu ta zaindute lanari jagokon aldetik beintzat.

Baiña ezta naikoa, urik emon ere, euskal-zale ta euskal-jakitunak, alde ori ondu ta beteteaz. Gureau bezela agertzen dan izkera batek, berantz egin barik gorantz, bere agertze-alde guztijetan aurerantz egiteko' goi-sundez, aundiki-sundez inguratu ta ezkotuta agertu bear dau (I); ta ori' euskotar aberats, jakitun eta aundikijak emon leijoe euskeriari sor jakon maitetasuna ta lotsia opa izanda, ta egiñen orotan, edonoiz eta edonun ori eragertuta.

Zori-txarez, gitxi-batzuk izan ezik, euskotar aundikijok, oretan, erijari, ikaspide txara emon oi, deutsoe; euskera arazori jaramonik egin ezaz, eta sari, baita (lotsagaririk aundijenez eta gorotorik iguingarienez) ostikoaz sokondoratu ta zapalduaz ere. Gertakun tamaltsu onen ondorenak, or agiri dira gero: euskaldun lauak eztau alegiñik egixen, gurasoak ezari deutsoen, amaren altzoan ikasi eben izkera gozoa ondo mintzatzen, eta beragan eta ingurukoetan iraunerazoten. Bestetara bai sari eri lauak, eri zeiak, zer guztijetan bezela onetan ere, aundikijen gauzak antzeztu narik' (2) al dabenean, sokondoratu egiten dau euskeria; ta au ezin badau'

---

¶ A. MEILLET, *Les Langues dans l'Europe Nouvelle*, 146, 147 ta 149 or.  
(2) A. MEILLET, *Les Langs. dans L'Europe Nouv.* 147 or.

euskal-itz garbijak erderatikoez ordeztuten alegintzen da (2); ta oretaraxe, euskariari bear ezti-ruan erderatiko itz asko ezari ta euskera garbizko beste ugari eratxi ta galdu erazo egiren deutsoz. Aunen kontra bariz, gorago esan dogun bezela, ezin gauza aundirik lortu, ez gure idazlarijen alegiñak ez izkera-zairien ekiñak; erijaren jokera edo jauskera nagosi, orokar eta zabalen kontra, lagun gitxi-batzuen lanak, eztabe erasote indarik-eta.

Aor bada euskotar aundikijak, euron guraso-izkeriari deutsen maitekabearen ondorena.

---

Eta aitu-eziñezkoa da euron maitekabe ori: aundikijok, euron jatori-odol garbija ta abizenaren argitasuna eragertu leijoezan agiri-bideak, beti maite izan oi ditue-ta. Ala zetzakije euskotaron jatori-izen eta jatori-odola, euskariak, iñungo pergamiñu ta arma-ari goitiarek baiño eragijago, altuago iminten dituana? Euskariak, izkuntzalari gorengo ta beste jakitun ooren aburuz' euskotar erija, Europako jatorena, etxagunena dala eragertzen dau. European gaur itz egiten diran izkera oro dirala-iñok ezarijak, kanpotarak ekarijak (dirauskue jakitunok) euskaria izan ezik; orok dituela, euren jatori-zustraijak, Europaz kanpotiko; euskariau dogula bakarik, beronen eroak, beronen zustraijak, beti ta beti, (gizonaren ezaupidea eltzen dan aintxiriengo denporetatik eta gero), iñoiz aldatu bako lurari itsatsi ta erpetuta European agertzen dan izkera soil-soila. Europa zaareko beste izkera oro, euskariak aintxiriatasunean lagun zituan oro ilten ikusita bizitziaz geratu dan bakara, gure izkeria dogula gure guraso bulartsuen eutsite-indar eta buru-jabetasunezko gogo azpiratu-eziñezkoari eskerak.

Eta au, guztijau, munduko jakitun orok, munduko jakintza osoak erakusten deuskue; geu euskotarok agertzen gara, goitiartasun ori, jatortasun ori, geure gurasoen azkatasun-gogo sakon eta gogoraren agerkai eder ori aintzat artu nai ezik, edo ezagutu nai ezik.

Euskariau dogu, beste alde batez, geure erijaren erlejiño, oitura-garbi ta izate-alde on guztijen eusle ta zaintzailerik zintzoena, mila bidar esan izan dan bezela ta begijen aurean orok ikusten dogun bezela.

Eguzkija, bere suzko argitasunaz edoi ta laiñoak uratuz ta aijenatuz gureganatu oi dan bezela' euskariaren jatortasun eta onbidetasun orek ere aurean agertzen jakozan ilunpide ta otz-pideak apurtu ta uxatuz, biztuko ditu noiz-edo-noiz euskotar oroen adimenok; berotuko ditu gure biotzok, eta eusko seme danoen artean eragiko dogu, dagokijon toki jagi, goitiar ta aberatseragiño, gurasorik-guraso eldu jakun etorki ederau: mundu-aldijaren aintxiñenetatik sendo ta buru-jaube agerturiko gizon goitiarenakin lotzen gaituan urezko kate eder eta luzeau.

---

(2) Ikusi J. VENDRYES, *Le Langage*, 266, 267 ta 333 gn. or.